


Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Spain was different



BENIDORM (ESPAINIAKO ESTATUA), 1959KO UZTAILA. Benidormeko Nazioarteko Kanta Jaialdia burutu zen lehenengoz. Uda horretan ere Mediterraneoeko Kanta Jaialdia estreinatu zen Bartzelonan eta, besteak beste, Pez Espada hotel itzela zabaldu zuten Torremolinosen. 1959ko udak, horrenbestez, inflexio puntua ekarri zuen espainiar ekonomian. Urte hasieran 76,3 milioi dolarretako defizita zeukan Francoren erregimenak eta, gainera, petrolio hornikuntza eteteko mehatxua zuen zelatan. Urte amaieran, turisten dibisek 100 milioi dolarreko superabita eragin zuten. Datuok Gabriel Cardona eta Juan Carlos Losada historialariek bildu dituzte berriki *La invasión de las suecas* liburuan.

Francok 1951n sortu zuen Informazio eta Turismo Ministerioa, baina zaila zen Mediterraneoan Frantzia edo Italiarekin lehiatzea: komunikabide eta errepide sarea oso kaxkarra zen, ez zegoen ia hotel modernorik ezta kanpinik ere.

Baina 1953an Madril-New York hegaldiak hasi ziren, eta Hilton eta Sheraton kate han-

Ezkerretik eskuinera, Torremolinoseko hotel bat, 60ko hamarkadan eraikia; *Amor a la española* filmeko kartela; Benidorm 1960 inguruan, hirigintzan basakeria lehertu baino lehen; eta *La invasión de las suecas* liburuaren azala.

diek Iberiar penintsulan hotelak eraikitzea erabaki zuten. Estatubatuarrak gutxiengoa ziren bisitari kopuruari zegokionez, baina dirutza utzi zuten penintsulako kostaldean; 1960an 133 milioi dolar xahutu zituzten Espainian, turismoak sortutako irabazien %45,1.

Turisten bi herenak frantziarrak, ingelesak eta alemaniarrek ziren eta, hala ere, Cardona eta Losadaren hitzetan “espainiarrentzat emakumezko turista guztiak suediarrek ziren; inortxok ez daki mitoa nola sortu zen”. Mitoa zabaltzen, behintzat, garai hartako zenbait filmek ederki lagundu zuten, gehienak Alfredo Landa iruinsemea protagonista zutenak, hala nola *Amor a la española* edo *Tres suecas para tres rodríguez*.

1962an Manuel Fraga Informazio eta Turismo ministro izendatu zuten. *Spain is beautiful* lelo zaharra albo batera utzi eta *Spain is different* eza-guna zabaldu zuen. Torero eta flamenko dantzarien topikoa sustatzeaz gain, Cardona eta Losadaren ustez, leloak “mezu subliminal maltzurra” zuen. “Espainia desberdina bada, sistema politiko desberdina izatea ere justifikatuta dago”.

Arrastoak

Nefertitiren adina zalantzan



HENRI STIERLIN historialari suitzarrek Nefertitiren busto ezaguna faltsua dela esan du. Ustez pieza eza-guna aurkitu zuen Ludwig Borchardtek 1912an eginarazi zuela dio Stierlinek, erreginaren lepokoetako baten euskarri izan zedin. Bustoak sorbaldak bertikalean ebakita dituela dio suitzarrek, eta egiptoar-

rrek horizontalean moztu ohi zituztela. Horrez gain, begi baten falta erabili du argudio: “Iraina da hori antzinako egiptoarrentzat, estatuek pertsona bera ordezkatzeko baitzuten”. Beste historialari batzuek eta Berlingo Altes Museumek berehala gezurtatu dute Stierlinen teoria polemikoa.